

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Iragarki jabetza publikoa ibilgailuak sartzeagatik, aparkamendua erreserbatzeagatik, terrazak jartzeagatik okupatzeari dagozkion erroldak onetsi eta dagozkion edota publizitate-hesiengatik hirigintza-lizentziagatik tasak kobratzea.

Zenbait udal tasari dagozkion ordainarrazpenen erroldak onetsi dituzte 2026ko urtarrilaren 20ko alkatetza dekretuen bitartez, hain zuzen ere, honako hauei dagozkienak: Ibilgailuak Garajeetara espaloian zehar sartzeko udal jabari Publikoaren okupazioagatikok Tasa; Aparkaleku-Erreserbarena; Taxi-Geltokiko Aparkaleku-erreserbarena; Bide Publikoa Okupatzearena (Terrazak) eta Publizitate-hesiengatik hirigintza-lizentziagatikok Tasa.

Jendaurreko egiten da hori, Zergaren gainera Foru Arau Orokorreko 100.3 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, eta horren arabera hamabost eguneko epea irekitzen da; epe hori bestalde, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo biharamunean, hasiko da kontatzen; modu horretan, interesatuek dosierra aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak egiteko aukera izan dezaten; espedienteari dagokionez esan, hori, Udal honetako Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Departamenduan, egongo dela.

Halaber, Zerga Bilketarako Foru erregelamenduen 15. artikuluan eta hurrengoetan erabakita dagoenaren arabera, ondorengo zergak ordaintzera beharturik dauden zergadunak jakinean jartzen ditugu, hots, Ibilgailuak Garajeetara espaloian zehar sartzeko udal jabari Publikoaren okupazioagatikok Tasa; Aparkaleku-Erreserbarena; Taxi-Geltokiko Aparkaleku-erreserbarena; Bide Publikoa Okupatzearena (Terrazak) eta Publizitate-hesiengatik hirigintza-lizentziagatikok Tasa, ezen 2026ko ekitaldiko Erroldari dagokion kobrantza, borondatezko epean, hurrengo era horretan egingo dela:

Ordaintzeko epea

2026ko martxoaren 3etik maiatzaren 5era arte, biak barne. Helbideratutako ordainagiriak kontuan kargatzea: 2026ko maiatzaren 5ean.

Ordaintzeko lekua eta modua

Ordainketa egiteko Finantza-erakundeak	— Abanca — Caja Rural de Navarra — Kutxabank	— Eskudirutan, Bezeroaren Kontuan Zordunduta edo Kutxazain automatikoetan
	— Banco Sabadell	— Bezeroaren Kontuan Zordunduta edo Kutxazain automatikoetan
	— Laboral Kutxa	— Bezeroaren Kontuan Zordunduta
	— Caixabank	— Kutxazain automatikoetan
Ordainketa helbideraketaren bidez egiteko agindua	— Bilketa Atalean telefono, edo e-mail bidez, edo Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegora etorruta	
	— Fidantza Erakunde Laguntzailean, aldizkako zerga bat ordaintzean	
Internet bidezko ordainketa	http://sede.basauri.eus	— Basauriko Udaleko web orrian sartuta, jasotako ordainketa-gutunarekin, eta «Egoitza Elektronika – Nire Ordainketa» aukera erabiltuta — Ordainketa Erakunde Laguntzaileen on-line bankuaren erabiltzailearekin edo ordainketa txartelarekin. Edo beste edozein Finantza Erakunderen ordainketa txartelarekin, Erakunde Laguntzaile ez izan arren. Edo bizum-en bidez



Etxera bidalitako ordainketa-gutuna jaso ez arren, berdin-berdin ordaindu beharko da zerga-zorra. Ordainagiria edukiko ez bazenu, eskatu Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ). Helbideratzea aldatuko bazenu, horren berri eman iezaiozu Zerga Bilketako Bulegoari 2026ko apirilaren 28an baino lehen.

Epe horretan ordainketarik egin ez duten zergadunei premiamendu bidez ordainaraziko zaie, dagozkion errekarguak aplikatuta.

Horixe azaldu nahi izan da jendaurrean, jendeak jakin dezan eta hura bete dadin.

Basaurin, 2026ko urtarrilaren 20an.—Ogasun, Kontratazio eta Ondare Arloko Ordezkaria, Berta Montes Beltrán